


ERREPORTAJEA: EUSKOTREN 21 PLANA / AIA: LANDARE AZOKA
IRITZIA: IÑAKI GURRUTXAGA

Orioko eta Aiako aldizkaria / 2003/02/21

141

KARKARA

Galipotaren kostera



PERTSIANAK
A Y O M A Z
 Aluminio, PVC
 Venezianak
 Motorrak...
 Tel: 943 639 01 Mugakorra 600 70 52 77

tel/fax: 943 89 00 69
 Araba kalea, 26 • 20 000 ZARAUZ

URBIDE
 ITURGINTZA, BEROGINTZA
 GASA, BAINU, ERAKUSKETA
 Instalazioak, mantentzeak, garbaitzeak

Elkar
 pintura eta paperatze lanak zoru leunketa
 Abentilaño industriakora
 943 83 00 45 - 2 61 0 00 33 95
 ZARAUZ

Lizaso
Utziariak

 Euzko Gudari, 46 • 20000 • 943 81 07 87
 0100 • 0100 • 0100 • 943 81 13 00

URANGA
 burdindegia
 Opari, menaje eta erremontak
 Telefonoa: 943 8312 36 Euzko Gudari, 3

MAKAZAGA
Igeltseritza
 ● Igeltseritza orokorra, denetarik onien dugu
 ● Erabilgarritasunak eta konpromisoa ditugu
 Lan ikuruna eta merkea
 Tfnoa: 943 83 59 00


Juan Albizu
elektrogailuak
CARFRA Markako sukaldeko altzariak!
 Abeslari kalea, 6
 Tfnoa: 943 83 12 49

ALUYOLA, S.L.
Fátima Aguirre
 LEHIOAK, ATEAK, PERSIANAK
 P.V.C., ALUMINIOA,
 POLIURETANOA SISTEMA
 PERFILTERMIKOAK
 PRESUPUESTOAK KONPROMISORIK GABE
 Jaizkibel plaza, 8 LASARTE
 Telefonoa: 943 36 22 77


 leiho isolatzaileak
LEIHOLAN
 0210
 mota guztietarako
 P.V.C. ALUMINIOA
 P.P.T.
 ERAKUSKETA
 Aita Lertxundi, 21
 943 89 49 36


LERTXUNDI
 Altxariak - Dekorazioak

 Jose Mª Genaba
 HARTUMAKOAK
 Euzko Gudari, 10 • 20010 ORIO - Tel./Fax: 943 13 09 09

BERTSO JARRIAK

Ikasleok mintzo

LEGE GORDAILUA SS 346/90

ISSN 1132-1105

TIRADA 2.750 ale

EDITOREA

KARKARA TALDEA
kultur elkarte

ZUZENDARIA

Ana G. de Txabarri

ERREDAKZIO BURUAK

Pat Cowie
eta Olatz Elustondo

ERREDAKZIO TALDEA

Jon Agirresarobe,
Miren Etxeberria,
Jakes Goikoetxea, Ana Iturain,
Iñaki Iturain, Idurre Lizarralde,
Ainara Peña, Rikardo Uzkudun
eta Jabier Zabaleta

AIAKO ERREDAKZIOA

Iona Rekarte
eta Eli Lasa

PUBLIZITATEA

Mari Jose Alkain

TESTUEN ZUZENKETA

Miren Etxeberria
eta Jabier Zabaleta

ALE HONETAKO LAGUNTZAILEAK

Antxon Gomez,
Iñaki Gurrutxaga eta Herri
Ikastolako 5. mailako ikasleak

AZKEN ORRIALDEKO IRUDIA

Zarauzko Photomuseum-a

ARGAZKIEN DIGITALIZAZIOA

Ana G. de Txabarri

AZALAREN DISEINUA

Goio Arana
BARRUKOA Jabier Zabaleta
eta Eva García

PUBLIZITATEA

Ana G. de Txabarri

BANATZAILEAK

Idoia San Sebastian (Orion)
Rosa Alkain (Aian)

INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E. (Oñati)

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik.

KARKARAn argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.

1
Hamar-hamaika urteko
talde bat gu gara,
zuengana jo dugu
hauxe esatera:
gustu-gustukoa da
denontzat Karkara,
bertan gure iritziak
goaz kontatzera.

3
Gure lagun txirrindak
etxerikan gabe,
hormetan pilatuta
arnas barik daude,
saltoka ibiltzeaz
nazkatu dirade,
noiz egingo ote dira
bidegorrien jabe?

2
Euria goitik behera,
mela-mela denak,
jolasteko irrikan,
begi-bistan kezkek;
aspergarriak dira
astebukaerak,
negu buru zurian
non dira aterpeak?

4
Maiteminduta denak
Orio herriaz,
kezkatutik gaude
hondartzako fuelaz,
buzo zuria jantzi,
garbitzera goaz,
zain dezagun Orio
guztion laguntza.

ORIOKO HERRI IKASTOLAKO 5. MAILAKO IKASLEAK

DOINUA: HAIZEAK BIDALI DU

PUBLIZITATE PREZIOAK

IRAGARKIA ALERO JARRITA

Modulu bat	9,50 €
Bi modulu	19,00 €
Hiru modulu	28,50 €
Lau modulu	38,00 €
Sei modulu	57,00 €
Zortzi modulu	76,00 €
Orrialde erdia	95,00 €
Orrialde osoa	160,00 €

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

Modulu bat	12,50 €
Bi modulu	25,00 €
Hiru modulu	37,50 €
Lau modulu	50,00 €
Sei modulu	75,00 €
Zortzi modulu	100,00 €
Orrialde erdia	125,00 €
Orrialde osoa	220,00 €

Iragarkia hamabostero edo hilero jartzen dutenei (bi aletik behin) % 10eko deskontua egingo zaie.
Publizitatea kontratatzeko, hitz egin Mari Jose Alkainekin (656 75 04 89 edo 943 13 41 46)



Orioko Udalak
diruz lagundutako aldizkaria



Aiako Udalak
diruz lagundutako aldizkaria



Eusko Jaurilaritzak
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Diputazioak
diruz lagundutako aldizkaria

Erloju bat aurkitu dut

Itzala eta Loretxu artean erloju bat aurkitu dut. Inork galdu badu, KARKARARA jo dezala nolako erloju den esatera.

HERRITAR BAT

Eskubiderik eza

Gaur, otsailaren 18a, Gregorio Eskuderok hamar hilabete, hogeita hiru egun eta 17 ordu daramatza bahiturik, bere herritik kanpo. Jadanik, espetxeak dituen lege errepresiboan atzamarrak somatu ditu: torturak, presoaren eskubiderik eza, dispertsioa (Alcala de Meco-tik Galiziako Curtis espetxera). Espetxe horretan Gregorio eta beste hamahiru euskal preso politiko itxialdi mugagabeen daude, urtarriaren 11tik, isolamendua eta kartzelako bizi baldintzak salatzen.

Begiak itxita ez ditugunok oso garbi daukagu gaur egun espetxeek daramaten dinamiken helburua euskal preso politikoen duintasuna akabatzea dela. Horra hor adibiderik garbiena: Bautista Barandallaren kasu gordina, ospitalerako joan-etorri amaigabeak, gaizki egindako ebakuntzak, tratamendu desagokiak... Edozer egiteko prest dira, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten gure senitartekoak ez askatzeko. 92. artikulua orain!

Legeak gogortzeak ez ditu gure presoak isilaraziko, berek badakite eta borroka honen funtsa zein den.

Aupa Gregorio!

ETXERAT TALDEA

Arraun pista dela eta

Aurrez hainbat herritarrek KARKARAn egindako azalpenekin bat egiten dugulako, ez gara asko luzatuko arraun pistaren proiektuak inguruari sortuko liokeen eraginari buruz iritzia ematen.

Gure iritziz, bai paisaiari eta bai natur ondareari eragingo dion kaltea ez da justifikatzen proiektuak sortuko dituen ustezko onurekin. Azken hamarkada honetan Oriai ibaiaren egoera pixkanaka aldatzen joan da. Jadanik, esan dezakegu hondartzatik hasi eta Ortzakaraino guztiz urbanizatuta geratuko dela. Errealitate horren aurrean Oriai ibaiaren inguruan geratzen diren natur ondare guztiak zaindu eta berreskuratzea izango da hemendik aurrera Orioko Ezker Abertzaleak izango duen jarrera.

gutunetarako OHARRAK

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAn helbidera bidal daitezke edo gure lokalean eskuz entregatu (kultur etxean). Posta elektronikoz ere bidal daitezke honako helbidera:

karkara@topagunea.com

KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

Bideragarritasunari buruz esan beharra dago Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro eta Kiroletako Sailen egitasmoekin erabat kontrajarria dela proiektua.

Arrauna eta arraunaren etorkizuna hartzen dira aitzakiazat proiektuan. Gogoratu behar dugu Orioko arraunlariak lortu duten ospea goraiatu beharreko sakrifizio eta esfortzuz lortu dutela, baina betidanik Orioko ibaiak eskaini dituen aukerez baliatuz. Ukaezina da arraun pistak bere aukera onak ematen dituela, baina honetaz guztiaz eztabaidatzeko gunerik egokiena arraun mundua bera da osotasunean kontuan hartuta. Kasu honetan interes pribatu batzuen bidez soilik eraman da eztabaida eta hau ez dugu egokitzen hartzen.

Beraz, arraun pista eta arraun pistaren inguruko proiektuaren aurrean guk ezezkoa ematen dugu. Gaur egun iraganaren testigantzarik eusten dion inguru aparta dugu; Gipuzkoan ez dago besterik maila honetakorik. Babesteaz gain, erabilera arrazionala bideratzearen aldekoak gara. Bere aberastasunaz gozatu ahal izateko sortu behar diren aukerak bultzatuta: bidegorriak, oinezkoentzako ibilbideak, museoak... Horrelako egitasmoek

gero eta harrera zabalagoa dute gizar-tean; Europatik laguntza bereziak eskaintzen dira egitasmo horientzat; baina, horretarako, behar-beharrezkoa da administrazio guztien inplikazio zuzena.

DANIEL BARRENETXEA, ENEKO DORRONSORO
ETA ITZIAR OLARIAGA, ORIOKO
EZKER ABERTZALEAREN IZENEAN

Alkateari erantzunez

Azken KARKARAn alkateak argitaratu zuen idatziari erantzun nahi diogu honen bidez.

Esan nahi diogu bere iritzia ez duela lortu oriotar asko komentatzea; ikusi besterik ez dago Arkupek 2405 firma bildu dituela astebetean, den-denak 18 urtetik gorako oriotarrenak.

Guk, oraindik ere, pentsatzen dugu Txankako bidea ez dela alternatiba egokia izango, ezta autopistako sarrera egiten denean ere, zeren eta sarrera hori Donostia aldera bakarrik izango baita, eta ez Zarautz aldera; gainera, bide hori hiru kilometrokoa izango da gero ere. Garbi dago, bestalde, autopistak eta bariantek ez dituztela herri barruko zirkulazio arazoak konponduko (Aita Lertxundi, Ibai Ondo...).

Alkateak dio bere idatzian herritarrei informazio osoa eman behar zaie; horri buruz, esan nahi dugu Arkupek hirutan jo duela Udalarengana informazio eske (iazko azaroaren 22an, aurrean; eta aurtengo urtarriaren 9an, beste bi aldiz), eta ez dugula erantzunik jaso. Isiltasun horren aurrean, gure kexa agertu behar dugu.

Alkateak aipatzen ditu, baita ere, beste hainbat herritan hartutako erabakiak, kale batzuk oinezkoentzat uzteko (Zarautzen, Donostian...); baina garbi dago, arazoari hotzean begiratzen dion edozeinentzat, gure herriaren egitura geografiko eta egiturazkoa desberdina dela eta, beraz, konparazioak ez duela balio.

Ona da administrazioak herritarren nahia kontuan izatea horrelako erabakiak hartzeko garaian, eta garbi dago dirua aurrez dezakeela herritarren iritzia jakiteko ahalegina egiten badu proiektuei bide eman aurretik.

Adierazi nahi dugu, berriro ere, ez gaudela herriko inguru batzuk oinezkoentzat izatearen kontra; baina uste dugula Txankakoa ez den beste alternatibaren bat aurkitu beharko dela.

ARKUPE ELKARTEA

Bertako arrainik jango al dugu?



ARANTXA IRURETA
39 urte

Beharbada, arrasteroek harrapatuko dute zerbait; baina, galipota jaso arte, ez dut uste. Zaila izango da aurtent bertako berdela eta antxoa jatea. Galipota dagoen bitartean arrantzaleek ezin go dituzte sareak bota, galipota harrapatuz gero hondatu egingo direlako, eta milioiak balio dituztelako.

Nahiz eta saltzen dena ondo kontrolatuta egon, jendea kezkatuta dago eta salmenta jaitsi egin da.



JOXE ANJEL IRADI
33 urte

Nik, bai; arrantzaleek ekartzen baldin badute, behintzat. Egia esan, ez dakit ekartzerik izango duten; kostako zaie galipota garbitzen. Oso urte beltza daukate arrantzaleek.

Arrandegietara eramaten badute, nik ona dela pentsatzen dut. Orain, oso gutxi ekartzen badute, beharbada garestitu egingo da, eta horrek arazo gehiago ekarriko dizkigu konsumitzaileoi.



LURDES EIZAGIRRE
33 urte

Gauza oso zail dago. Antxoa, txitxarroa eta hegaluzea: hori da hemengo arraina. Eta horiek ez baditugu, beste zerbait jango dugu, kanpotik arrain asko etortzen delako; baina pena ematen dit, bertako jendea horrik bizi delako.

Ez zait batere ondo iruditzen gure arrantzaleak galipota garbitzen ari diren bitartean beste batzuk berdetan aritzea. Batzuek dena libre beti.



FAUSTINA AGIRRE
49 urte

Baldin baitere. Galipota garbitu arte, halere, oso zaila ikusten dut.

Beharbada, jendea irakurte egingo zaio arraina erostea orain, baina ni fidatzen naiz.

Herriko arrandegietan baldin badago, ondo kontrolatuta dagoela pentsatzen dut. Nik, behintzat, berdin-berdin erosten dut dagoena, eta ez naiz gogoratzen galipotarekin.

Orain ETXERA eramaten dugu

Banaketa ondutegia

Larunbatetik igandera
20:00etatik 23:00etara

943 832 855

Goizeko

K A F E T E G I A

REGELATO

Etxeko helatuak eta kruasanak

San Nikolas, 17 Tfnoa: 943 13 17 47

Itzala

Taberna

Kanetan jokatzen ari diren

Tel. 943 83 12 59



BILDUTAKOIA DESKARGATZERA etortzen dira portura, eta buzoak eta poltsak prestatzen dituzte burrengo egunerako.

Galipotaren kostera

n Herriko arrantzale guztiak ari dira parte hartzen

Berdelaren kostera atzeratu dute eta, bestelako erabakirik hartu bitartean, galipota biltze-ari ekingo diote herriko arrantzaleek.

BERDELAREN KOSTERA HILABETE bat atzeratzeko erabakia hartu zuten arrantzaleek eta Eusko Jaurlaritzak otsailaren 14an. *Prestige* petroliontzia isuritako galipota dela eta hartu zuten behin-behineko erabakia. Hala ere, ez dute oraingoz berdelaren kostera zeharo galdutzat ematen. Erabaki egokia eta beharrezkoa izan da Bittor Dorronsoro Kofradiako presidentearentzat: *Arduratsu eta zubur jokatuta behar dugu itsasoaren egoeratik. Hilabeteko etena egingo dugu, gero baloratu galipotak itsasoan segitzen duen, eta, kondizio batzuk kontuan hartuta, erabaki: edo beda luzatu edo arrantza libre utzi.*

Urtearen hasieran, *Prestige*-k isuritako galipota kostera

hurbiltzen ari zela ikusita, arazoari heltzeko, Eusko Jaurlaritza eta euskal flota ordezkatzen duten lau armadore, Bittor barne, elkartu izan dira, erabakiak hartzeko. Galizian eta Asturiasen pasa dena kontuan hartuta, galipota itsasotan bertan biltzeko erabakia hartu zuten. Espainiako Gobernuak, hasieran, 3 mila tona baino ez zirela esan bazuen

ere, dagoeneko 15 bat mila ekarri dute arrantzaleek.

ETEN BIOLOGIKOA

Galipotaren ezaugarri kaltegarriengatik hartu dute berdelaren kostera eteteko erabakia. Alde batetik, mementoz, ezinezkoa litzateke sareak zabaltzea, Bittorren ustez: *Gure tresnekin ezin da atera; arrisku handia dago. Sareak za-*

*baltzen baditugu, denak erreko ditu material horrek. Eta, bestetik, biologoek aztertu beharko dute arrainaren egoera. Arrantzaleen kezkatik aparte, kontsumitzailearena ere kontuan hartu behar dela esan digu Leandro Azkue kofradiako idazkariak: *Kalitatea zaintzea eta kontsumitzailearen konfiantza izatea garrantzitsua da.**

LAN BALDINTZAK

Bitartean, Orioko arrantzale guztiak ari dira, galipota biltzeko lanetan. Aurreko asteetan, berez, paroan zeuden, eta akordio batera iritsi ziren Eusko Jaurlaritzarekin, lan egiteko diru sari eta aseguruarekin. Orain, kostera hasi ezin denez, Eusko Jaurlaritzarekin adostutako kalteordainarekin konforme daudela arrantzaleak kontatu digu Bittorrek, baina: *Lan gogorra eta nekoso da; eskuz jardun behar duzu, salabardoarekin; gerriarekin lan egin behar duzu, eta ordu eta egun asko dira.*

Behin-behineko erabakia dela nabarmendu nahi izan zuen Gipuzkoako Kofradien presidentek: *Horrek ez du esan nahi kostera aurten egingo ez denik. Ikusi beharko da biologoek zer esaten duten. Antxoaren kanpainarekin zer gertatuko den ere orduan ikusiko omen da.*

ARCACHONGO AKORDIOA

Bestalde, antxoaren kostera hasteko hilabete falta denean, erabat hautsita daude Arcachongo akordioa berritzeko arrantzaleen arteko negoziazioak.

Azken saioa otsailaren 13an egin zuten, Parisen, mugaren bi aldeetako arrantzaleek, baina negoziatioek porrot egin ondoren, Espainiako eta Frantziako gobernuen eskuetan geratuko dira hemendik aurrera negoziatio horiek, eta arrantzaleek badute kezka Espainiako Administrazioak nola jokatuko duen.

Hariari tiraka

Batek daki

Leandro Azkue, kofradiako idazkaria

Dagoeneko, 15 mila tona galipot baino gehiago jaso ditugu itsasotik. Eskuz. Itsasoa eskuz garbitzea ez da lan makala; baina kostera hasteko garaia da, jendea kezkatuta dago, eta gogoz ari da lan horretan.

Bertan dugun egoera tristeari aurre egiteko, erabaki zuzenak hartzen ari gara, baina Espainiako Gobernuak hasieran esandako 3 mila tona galipot baino askoz ere gehiago dago itsasoan. Gezurretan ibili dira, eta batek daki zenbat egongo den.


Batek, bai, ondo jakingo du; guk ez.

Korrikako bilerak

APIRILAREN 6ko goizean pasako da Korrika Oriotik, igandearekin, eta lehen bilera egin dute zenbait herritarrek, guztia prestatzeko. Laguntzeko prest dagoen edonor joan daiteke bilertara. Asteartero elkartuko dira kultur etxean 19:00etan.

Udako lanpostuak

UDALAK udako 16 lanpostu betetzeko deialdia egin du eta interesatuek otsailaren 28a arte aukeratu behar dituzte eskabideak. Bete behar diren lanpostuak hauek dira: zaindari bat, 3 kabinen garbitzaile, 4 komunen garbitzaile, 3 udaltzain laguntzaile, 3 aparkalekuko zaindaria, kobratzaile eta 2 peoi. Parte hartzeko, oriotarra izan behar da eta langabetua.



A ZONA dagoeneko kendu diote kanpinari.
B ZONA bakarrik geldituko da hondartzako proiektua martxan jartzen denean.
C ZONA noiz kenduko dioten kanpinari erabakitzeke dago oraindik.

Kanpinean gero eta toki gutxiago

MARTXOAREN 1EAN IREKIKO ditu atek kanpinak. Hondartzako proiektua dela medio, nahiz eta oraindik obrak ez hasi, zati bat kendu diote kanpineko lurrari. Lehen 360 partzela zeuden, eta, proiektua erabat bukatzen denean, 180 geratuko dira. Bestela esanda, lehen 1.400 lagun sartzen ziren, eta, gero, 800entzako tokia izango da. Murrizketa osoa 2002ko iraileko zegoen aurreikusita, baina akordio batera iritsi da Udala alde egin beharko dutenekin, haiek ahalik eta denbora gehien geratzeko, eta gaiari helduko diote berriro martxoaren bukaeran. Bitartean, hondartzako proiektua Dipu-

tazioan aztertu dute, eta zenbait aldaketa egin ondoren, denbora beharko du Udalak partzelazioa egiteko; ondoren, 5-6 hilabete barru, obren lizitazioa egingo da. Idoia San Sebastian kanpineko arduradunak kezka adierazi digu: *Aurten dagoenarekin konponduko gara, baina datorren urtean askoz ere txikiagoa izango da. Murrizketa osoa egiten denean, joan den udako egun txarrenetan zegoen jendearekin beteko dugu kanpina, eta eragina nabarmena izango da, baita herrian ere.* Hala ere, kanpina beste toki batean kokatzeko aukera aztertzen ari da Udala arau subsidiarioekin batera.

BORDATXO

- Bukadilloak
- Marisko razio bereziak

Tel.: 943 13 30 14

HI

HERRI IKASTOLA

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8
 TEL. 943 83 47 04
 FAX: 943 13 09 38

EDARTEGIA

KOLON TXIKI

JATETXEA

Herriko Espartaco, 1 - 0100 - Tel. 943 83 00 44

Zaragueta Eskola orio

telefonoa: 943 89 40 52
 e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

SOLOZABAL autoeskola

Eusko Gudari, 30-1. ezk
 telef: 943 83 08 12

Heineken

AMSTEL 1870

EUSKAL HERRIKO GARAGARDOA

Azurmendiko banaketak ORIO



TALDE IREKIA da Herrio eta ostegunero 18:30ean elkartzen dira kultur etxean. Interesa duen edonor joan daiteke.

'Herrio' taldea sortu da

n Orioko eta Orioko inguruko natura zaintzea dute helburu

HERRIO NATUR TALDEA sortu da Orion, herritarrak natura zaindu behar dela sentsibilizatzeko eta Orioko ingurumena babesteko.

Orioko Ur ta Lur enpresak planteatzen duen arraun pista ez dute begi onez ikusten eta desadostasun horrek elkartu ditu: *Arraun pistaren proiektuak erriberarik gabe utziko luke Orioko eta natura errespetatuko duen proiektu bat egin nahi dugu guk, Txingudikoaren antzekoa. Andatzako zenbait lur Diputazioarenak dira, eta Pagoeta ere oso gertu dugu. Hemen naturgune oso aberatsa sortu daiteke*, esan digute.

Horren inguruan Txingudiko Jabi Beltzarekin, Alberto Gosa herpetologoarekin, Mikel Izquierdo kirol teknikariarekin, Usurbilgo Udaleko arduradunekin, Diputazioko teknikariekin eta Antonio Campos eta Patxi Sarasuarekin elkartu dira. Usurbilgo Udalak Orioko ibaiko erriberak Europako Natura 2000 Sarean sartzeko eskaera egin du, erriberak babesteko, eta Herriok gustura hartu du erabakia.

ITSASERTZA AZTERTZEN

Orain buru-belarri arraun pistaren proiektuarekin ari badira ere, ez da hori lantzen ari diren gauza bakarra. Jendea sentsibilizatzeari ematen diote garrantzirik handiena eta kartelak, hitzaldiak eta bilerak egin, eta adituek lagundutako irteerak antolatuko dituzte. Bestetik, Orioko ingurumenari buruzko datu-basea sortu nahi dute eta liburuetan agertu den guztia ari dira jasotzen.

Otsailaren bigarren asteburuan, berriz, Euskal Herriko kostara behatzen lan egin zuen Herriok, beste zenbait talderekin batera. Arroketan eta itsaslabarretan zenbat galipot dagoen aztertu zuten. Talde guztien artean txostena bidaliko diote orain Eusko Jaurlaritzari, leku horiek ere garbitzeko eskatuz.

Proposamena egin edo zalantzaren bat argitu nahi duenak herrio@kzgunea.net helbidera ere bidal dezake e-mail bat.

BERRI LABURRAK

Inauteri festa

GOIKO tabernek mozorro lehiaketa antolatu dute martxoaren leian.

Sariak bost tabernetan emango dituzte, ordu haueetan: 1. saria, 270 euro, 04:00ean Errustan; 2. saria, 120 euro, 03:45ean Tragokan; 3. saria, 60 euro, 03:30ean Koastan; 4. saria, 3 txanpain botila, 03:15ean Gure Txokon eta 5. saria, 3 txanpain botila, 03:00ean K2n.

Tasa eta zerga ordainketak

ORDAINDU beharreko tasen eta zergen kobrantza-epaiek zehaztu ditu Udalak. Aurten, ibilgailuen zirkulazio zerga martxoaren 1etik apirilaren 15era bitartean ordaindu beharko da, aurreko urteetan baino hila-bete lehenago; eta 2002ko azken hiruhileko ura, es-tolda eta zaborrarena otsailaren 20tik apirilaren 20ra bitartean.

Arkupek 2.405 firma bildu ditu

PLAZA oinezkoentzat uzteko proiektuaren kontra dauden 2.405 lagunen firmak bildu ditu Arkupek. Orain Udalean aurkeztuko dituzte.

ALUSTIZA AUTOBUSAK

Autobus litera eta 16, 19, 25 eta 56 plazakoak
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko

Tel: 941 16 28 93 / 16 28 94 | Mugikorra: 658 78 00 01 | 658 78 29 97



Zarautz
AUTOESKOLA

zarautz 943 83 38 52
orio 943 83 57 19

erraztasun gehiago orain
36 hilabete ordaintzeko



IPUINAK era askotara landu zituzten Orioko gazteak Txurrukan.

Ipuinak lantzen Txurrumuskin

HILAREN 14, 15 eta 16an LH3tik LH5era bitarteko 32 gazte eta 8 begirale elkartu ziren Txurruka aterpetxean, Txurrumuskik antolatuta. Asteburuan jarduera ugari egin zituzten, eta horiek guztiek ipuinekin zerikusia zuten. Begirale batek esan digunez, Orioko gaztetxoek oso ondo menperatzen dituzte ipuinak.

Larunbatean dortoka bat azaldu zen aterpetxekeko instalazioetan, eta harekin ere asmatu zuten istoriotxo bat, Txurruortoren istorioa, hain zuzen. Guztiek oso ondo pasatu zuten hango egonaldia, baina igande-

an denak leher eginda bueltatu ziren.

INAUTERI FESTA

Martxoaren 1ean, Txurrumuskik eta Arkupek antolatuta, inauteri festa izango da. Parte hartu nahi dutenek 4tik 13 urte bitartera izan beharko dituzte, eta alde zuzetik ize-na eman behar dute Uranga eta Lore burdindegietan, Argiñen edota Anarrin. Larunbatean 16:00etan plazan hasiko da festa, lehenik meriendak banatuko dituzte, eta gero kalejira egingo dute trikitilariekin; azkenik, sariak banatuko dituzte plazan.

HANDIK ETA HEMENDIK

SANTIAGO BEIRO

Armadorea

"Arrainagatik ez dut beltza ikusten, baina bai jarduteko moduagatik. Sareek galipota hartzen badute, pikutara joango dira."

EGUNKARIA 2003/02/11

t

PELLO SAIZAR

Arrain saltzailea

"Nik ez dut uste 'Prestige' hondamendiak arrandegietan eraginik izan duenik. Galizian, bai. Mariskeroentzat izan da orain artean galera handiena."

NOAUA 2003/02/14

t

ANTONIO CAMPOS

Jubilatua

"Euskal Herri potente bat bideratu behar dugu (...) baita kirolean ere."

NOAUA 2003/02/14

LURDES
MUTURIDENA

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
Etxeko produktus: tripaiki, odolki, txakorra, txariza, krokotak...

Eusko Gudari, 25 - Tel. 943 83 00 10

DORRONSORO

JANARIDENDA

ARTIBAZTEKO GAZTEGINTZA

ORIOGI

ORIKO
OGIA

OPIL OKINOEGIA
frontzi oritza
Tfnoa: 943 83 01 89

TANATORIO ZARAUZ

EURIPUNBARIA TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donazio eta probintziako agintarientzat
- * Aldizkako zerbitzuak
- * Belatorio gelak
- * Koroiak, eskalak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarauz

Tel: 943 89 94 37 / Fax: 943 89 40 43
e-mail: hantzagil@hantzagil.net



BIGARREN postuan sailkatu ziren oriotarrak Oriako ibaiko jaitsieran.

ARRAUNA

Astillero azkarrena Oriako ibaiko bederatzigarren jaitsieran

n Jende ugari bildu zen bazkideen urteroko batzarrean

HOGEITASEI TRAINERUK PARTE hartu zuten otsailaren 15ean jokaturako Oriako ibaiko jaitsieran. Bederatzigarren aldia da estropada hau jokatzeko delako eta azken zortziak Oriok irabazi ditu. Aurtengoan, ordea, bigarren sailkatu dira, Astilleroren atzetik, bederatzi segundora. Bigarren trainerua, Oriko eta Ondaruko arraunlariz osatua, hogeigarren sailkatu zen.

BAZKIDEEN BATZARRA

Otsailaren 14an, ostiralarekin, ohiko batzar nagusia egin zuten arraun elkarteak. Bertan, azken denboraldiaren kirol emaitzak, egoera ekonomikoa eta datorren urterako aurrekontua aurkeztu zituzten, azken batzarreko aktaren irakurketa egitearekin batera. Araroz gabe onartu zuten batzarrean izan ziren bazkideak.

Iazko denboraldiko bederatzi hilabeteetan, 84 eguneko aktibitatea izan zuen Orioko Arraun Elkarteak. 24 bandera eta 15 domina

lortu zituzten guztira. Aurtengorako, bi esponsorren jarraipena segurtatua dute, eta zortzikoarekin eta traineruarekin ari dira entrenatzen senior kategorian. Kadeteetan mutil asko ari da arraunean; infantiletan eta jubeniletan, ordea, zertxobait gutxiago. Aurtengoan, gainera, seniorren zortzikoak Londresko estropadetan lehiatzeko da, aurreko urtetan Frantziara joan izan diren bezala. Hala esan zuen batzarrean arraun elkartearen idazkari Iñaki Sarasuak: *Aurreko denboraldietan Orioko zortzikoak frantziar bote onenentzat test serioa izan da eta aurtengoan intentzio berarekin goaz Londrese- ra, nabiz eta ban mundu osoko zortzikorik onenek elkarren aurka jokatu.*

Bestalde, erraztasun handiarekin irabazi zieten Castroko mutilei Euskadiko Sei Orduen barnean jokatu zen hirugarren ergometro bandera. Sei segundoko aldea izan zen bi taldeen artean. Oriok irabazi du, beraz, denboraldiko lehen bandera.

DEMA

Apustua atzeratu da

OLIDENEN idiek eta Zestoako Lopene baserrikoek elkarren aurka jokatu beharreko apustua atzeratu egin dute, Lopeneko idi jabeari sortutako ezbeharraren ondorioz.

PLAIEROAK

Jokatu ezinean

ATZERATU egin dira plaieroetako azken jardunaldiak, *Prestige*-k isuri duen galipota Zarauzko hondartzaraino heldu delako. Herriko bi ikastetxeetako haurrek ezin izan dituzte beren partidak jokatu. Bestalde, Ikastolak aurtengo ikasturterako antolatu duen surf ikastaroa ere bertan behera utzi dute.

EHIZA

Postuen zozketak

PASA den larunbatean ireki zen kontrapasako denboraldia. Kukuarri inguruetan 81 postu jarri dira guztira. Eguneroko ohi dira zozketak ikastolako jangelan, arratsaldetako zortzietatik aurrera. Kontrapasa denboraldia Martxoaren 15ean amaituko da.

FUTBOLA

Hiru taldeek irabazi

AURTENGO denboraldian lehen aldiz, Orioko futbol taldeko hiru taldeek bere partidak irabazi dituzte aste berean. Erregional mailan aritzen den taldeak, joan den asteko partida ere irabazi egin zuten.

Tragoxka
Pub
Aritzaga, 11

Illegua
MARIJO
Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

Iñaki Garate
Aseguragutia
Asegurak
Eusko Gudari, 14 (atzeak)-3. Tfnoa: 943 13 46 07

OLIDEN HARATEGIA
Eusko Gudari, 2
Tfnoa: 943 83 10 86

FUTBITO

Txapelketa airean

IAZKO denboraldian izandako arazoak tarteko, ez du txapelketarik antolatuko orain artean zeregin horretan jardun duen lagun taldeak. Orain ikusi beharko da beste talderen batek txapelketa antolatzeko ardura hartzen duen.

PILOTA

Borja Agirresarobe estelarrak jokatzeko

GORAKADA nabarmena izan du azken hilabeteetan Borja Agirresarobe erremon-tista oriotarraren jokoak. Hori dela eta, enpresak estelarrak jokatzeko hasteko aukera eman dio. Ea laster onenen ondoren jokatzeko aukerarik dugun.

Lau t'erdikoaren lehen jardunaldia

HILAREN 21ean jokatu da herriko gazteen arteko lau t'erdiko pilota txapelketaren lehen jardunaldia, arratsaldeko zortzietatik aurrera. Maiz-tza bitartean txapelketako partidak jokatu dira ostirale-ro. Antolatzaileek herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte partidak ikustera.



JOKALARIEK SERIO ENTZUTEN dituzte Jon Amilibia entrenatzaileak emandako aginduak.

ARETO FUTBOLA

Denboraldi bikaina aurtengoa

LIGAXKAKO BIGARREN PARTIDA galdu dute Orioko Tabernak taldeko mutilek pasa den asteburuan. Hala ere, sailkapenaren bigarren postuan dira orain, eta hirugarrena urruti samar dute. Pasaiko talde bat da lider, baina ez daude oso urruti, eta laster Orion jokatuko dute elkarren aurka, bigarren itzuliko partidaren. Taldea ez dago igoerarekin itsututa, baina oso gustura daude egindakoarekin.

TALDE FILIALA

Beste taldeak 2. A mailan jokatu du eta sailkapenaren erdialdean dira orain. Jende berria sartu da taldean, denboraldiaren hasieran tal-

dean aritzen ez zen jendea. Talde honetan ondoen aritzen direnak maila autonomikoan jokatzeko aukera izan ohi dute sarritan. Jon Amilibia da taldeko entrenatzailea, eta jokalaritza moduan ere aritzen da. Bera da taldeko beterrakoa. Azken partidaren bina berdindu zuten, partida guztian atzetik ibili ostean.

Bi taldeek Karela kiroldegian jokatu dituzte beren partidak; ostiral iluntzetan, ahal bada. Jendeari kosta egiten zaio partidak ikustera joatea, nahiz eta ikusleen kopurua zerbait hazi den, denboraldi hasierako kopuruarekin alderatuta. Taldearen joko onak izango zuten, bai, eraginik horretan.

LORETXU JATETXEA

Euzko Gudari, 18 Tel: 943 83 03 07

Antillak jateko

ANTILLA

Abeslari kalea, 2
943 83 23 09

KALITATEA
EUSKAL OKELA

Juanxo
harategia
943 83 18 37

SUPLEN LABEIA

KAIUA
TABERNA

Anibarko Portua, 35
Tel. 943 83 40 54
20810 ORIO

GABON

Plater konbinatuak,
pintxoak eta txokolatadak

Teloa: 943 83 06 09

Carmen
el
TXONTXO

Arraindegia

Tel. 943 83 05 37 - 943 83 27 47

RAMIRO
erreportaje digitalak
943 83 10 48

DON'T WORRY,
BE HAPPY?

Azkenaldian asko ardura-
atzen nauen gaiarekin
nator oraingoan. Kontua da,
gauzak oso azkar doazela
gizarte honetan; askotan ez
gara enteratzen eta, denbora
gutxira, zapa, berrikuntza
bat, arau berri bat edota
aldaketa handi bat gertatzen
da munduan edo gure inguru-
an. Gauzak hain azkar doa-
zenez, ez dugu erreflexiona-
tzen ados gauden edo ez,
onuragarria izango den ala
ez...

Egoera honek beldur han-
dia ematen dit, ze, kontura-
tzen ez garen arren, hori da
globalizazioaren helburua:
dirua dutenek boterea dute
eta haiek dira dena erabaki-
tzen eta maneiatzen dutenak.
Bizitza erosoagoa egiteko
gero eta aukera gehiago
dugu; horregatik, gero eta
gehiago kontsumitzen dugu.
Baina okerrena da uste
dugula hori dela guretzat
onena, eta, nola ez, gure
aukera izan dela.

Honekin guztiarekin zera
esan nahi dut: denok hartu
behar dugu denbora zer nahi
dugun eta zer behar dugun
aztertzeke, eta horren arabe-
ra gure aukerak egin. Jakina,
zerbaitekin ados ez gaudene-
an, ahal dugun heinean, neu-
rriak hartu behar ditugu ego-
era aldatzeko. Azken finean,
nahi duguna garbi badugu,
eta horiek lortzeko borroka-
tzen badugu, askoz ere
zoriontsuagoak izango gara.
Happy bai, baina *don't worry*
edo kezkatu gabeko filosofia
horri men egin gabe.

AINARA PEÑA

IRITZIA

Auzia Oteiza Fundazioan

Azken hilabete hauetan liskar bizia sor-
tu da Oteiza Fundazioan. Patronatuko
kideak bi sektoretan zatituta daude; ba-
tetik, sektore ofizialista edo Nafarroako Go-
bernuarekin bat egin duena; eta bestetik, sek-
tore kritikoa edo Oteizaren nahiak bideratzen
dituena.

2002ko otsailean Oteizak, Fundazioaren
estatutuak ematen dizkion eskumenak erabi-
lita, Carlos Catalan izendatu
zuen Patronatuko kide izateko,
baina kide ofizialistek ez zuten
onartu. Ondoren, Oteizaren
alde daudenek epaitegira jo-
zuten eta, Agoizko Maria Aleman
epaileak, lehendabiziko instan-
tzian, atzera bota du eskaria. On-
dorioz, auzi-jartzaileek erre-
kurtsioa jarri dute eta oraindik
epaitegiak ez du erabakirik har-
tu.

Bi sektore horiek Funda-
zioan pisu bera dute. Oteiza-
ren aldekoak lau kide dira:
Jaione Apalategi, Xabier
Morras, Jose Angel Iriga-
rai eta Juan Antonio Ur-
beltz; eta Nafarroako
Gobernuaren aldekoak
beste lau: Jesus Laguna
eta Juan Ramon Corpas,
Nafarroako Gobernuaren
ordezkariak, Marina Sanz eta
Juan Huarte, Fundazioko presi-
dentea. Gatazka sortu denetik, Patro-
naren erabaki nagusiak presidenteak erabili-
tako kalitatezko botoaren bitartez hartu dira.

Baina noiz, nola eta zertarako sortu zen Otei-
za Fundazioa?

70eko hamarkadan Nafarroako Alzuza he-
rriari lanean ari zela, nafarrekin hartu-eman
estuak zituen Oteizak. 1989an Eusko Jaur-
lartzako Kultura Sailak Oteiza, Saez de Oiza eta
Fullaondoren Bilboko Alondegiko proiektua
arbuia zuen. Ez ziren izan euskal agintarien
eta Oteizaren arteko harremanetan egun go-
zoak. Aldiz, Nafarroako agintariekin harremana

eztia zen. Giro hartan, 1992an, Oteizak Na-
farroako herriari eman zion bere lana, eta 1996an
Jorge Oteiza Fundazioa sortu zen; besteak bes-
te, Alzuzan Oteizaren museoa egiteko asmoa
gauzatzeko.

Oteizaren proiektuak, Alzuzakoa barne, be-
ti izan dira irekiak, aitzindariak, dinamikoak,
kreatzaileak eta Euskal Kulturari uztartuak. Fun-
dazioak Oteizaren obra sailkatu, antolatu eta

erakustez gain, beste helburu ba-
tzuk ditu: haurrei formazio esteti-
koa ematea, hizkuntza artistikoen az-
terketa egingo duen zentroa sortzea,
euskararen sorrera ikertzea, Jorge
Oteiza Fundazioaren Adiskideen EL-
karteak sortzea eta beste hainbat.

Horrelako proiektua ez da Na-
farroako egungo agintarien gustu-
koa. UPNrentzat proiektua aurre-
rakoiegia da eta, gainera, kutsu eus-
kalduna du; eta, jakina da, Sanzen
gobernuaren helburua baino, ob-
sesio nagusia Nafarroako euskal
agerpen guztiak zapuztea da.

Hori horrela izanik, Nafa-
rroako Gobernuak Oteiza
Fundazioa kontrolpean jar-
tzea erabaki du, bertako Pa-
tronatuan bere esanetara
dagoen sektorea erabilia,
Oteizaren borondatea baz-
tertzeko, eta Jorgek eskuza-
baltasunez Alzuzan utzitako on-
darea eskuratzeko. Hori dago Otei-
za Fundazioan sortutako iskanbilaren az-
pian: bi proiektu kontrajarriak, Oteizarena eta
Sanzen gobernuarena.

Irainingarria da Nafarroako herriarekin hain
eskuzabal (kalkulaezina da Oteizak Nafarroa-
ko herriari eman dion ondarearen balioa) izan
den artista batekin hori egitea. Ez da zilegi Fun-
dazio bat, fundatzailearen proiektu eta boron-
datearen kontra erabiltzea. Onartezina da XX.
mendeko sortzaile handienetako bat bizirik
lurperatzea.

Espero dut Jorgeren kemena (garai bate-
koa ez bada ere) garaila ateratzea auzian.



Iñaki Gurrutxaga



Bi proiektu kontrajarriak
daude: Oteizarena eta
Sanzen gobernuarena

Allianz

Marigre Zaldúa
aseguru agentzia

IBAI ONDO, 10 bota-0111
telefonoa: 943 13 47 60.
faxa: 943 83 57 52
e-maila: zaldua@telefonos.es

AUTOAK AUKERA ONEAN

AIA ORIO

Telefonoa: 943 13 04 38

AZKUE

Itsas-gaiak

Eusko Gudar. 12
7601383 25 55

AHOLKULARITZA
Fiscal, libarria, kontablea

Eugenio Garmendia

ASEGURU ARTEKARIA

IBAI ONDO, 1
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17



EuskoTren 21 plana

OLATZ ELUSTONDO



Tren geltoki ingurua guztiz aldatuko du EuskoTren 21 planak. Hau izango da geltoki zaharra bota zutenetik tren geltokian egingo den aldaketa handiena. Pasonibela kendu egingo dute eta trenbidea metro batzuk igo, autoak eta oinezkoak haren azpitik pasatzeko. Laster, auto guztien gainera eta autoz baino azkarrago iritsiko gara Donostiara edo Zarautza.

Eusko Jaurlaritzak Eusko Tren 21 plana prestatu du, Zumaiatik Donostiara bitarteko tren zerbitzua hobetzeko. Plan horren barruan obra asko daude, baina guztien artean Aiarren eta Orioren artean dagoen pasonibela kentzeari eman diote lehentasuna. Izan ere, orain hamar bat urte erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak pasonibelak kentzea, eta gaur egun bi bakarrik geratzen dira Gipuzkoan: horixe bat, eta Debakoa bestea.

Gutxi gorabehera garai hartan erabaki zuten Orioko bariantearen proiektua egitea ere. Proiektu hark Arraun Elkartearen pare horretan errotonda bat egin eta pare hartatik Santiora lotura egitea ere proposatu zuen.

Hasieran pasonibela kentzeko irtenbide egokia zela pentsatu zuten, baina segituan kendu behar izan zuten burutik asmo hura, Ingurumen Sailetik helegitea aurkeztu zutelako. Izan ere, Olatxo alde horretan babestu beharreko hezeguneak daude eta ezin da obrarik egin. Bestalde, Arratola inguruan bizi direnentzat sekulako buelta zen: Oriora joateko lehenbizi Santioraino joan behar zuten eta gero atzera ostera, Arraun Elkartetik barrena.

TRENBIDEAREN AZPITIK AUTOAK

Beste zenbait aukera aztertu eta gero, trenbidea metro batzuk altxatzea erabaki dute azkenean. Hartara, ibilgailuak eta oinezkoak trenbidearen azpitik pasako dira: *Ez dakigu zehatz zenbat metro igoko duten, baina kamioiak pasatzeko adina toki utzi beharra daukate: 4-5 metro, hortxe ibiliko da, esan digute Aiako eta Orioko alkateek.*

Hortaz, oraingo tren geltokia ere bota, eta berria egin beharko dute, altuago. Geltokitik Donostia aldera pixkanaka jaisten joango da, Portuko zuloaren pare horretaraino.

Juan Carlos eta Mirari alkateek aurreproiektua ikusia dute, baina ez dute eskuetan izan, eta, beraz, gutxi gorabehera emandako datuak bakarrik dakizkitez. Gainera, hasierako plano haiei zenbait aldaketa egiten ari dira orain; besteak beste, garesti samarra omen zelako. Pasonibela kentzeko behin betiko proiektua ETT Ingenieritzak idatziko du. Otsail hasiera aldera hasi



OINEZKOENTZAKO IBILBIDEA egingo dute Santiotik Orioko geltokira. Aurten hasiko dira obrak.

ziren lanean eta sanpedrotarako bukatu nahi dute proiektua. Aiako Udalean izan dira, dagoeneko, material topografikoaren bila.

Lanean hasterako, halere, urtebete erraz joango da: proiektua egindakoan jendurrean jarri, erreklamazioei erantzun, pleguak idatzi, obra egingo duen enpresa kontratatu eta abar egin behar direlako.

TREN GELTOKI BERRIA

Oraingo tren geltokia bota eta berria egingo dute. Hiru solairu izango ditu, eta, gainaldean, kupula. Beheko solai-

ruan, errepidearen mailan, aparkalekua egingo dute. Zati bat tren geltokiaren azpian egokituko da, baina beste zati bat ere izango du Ubegun aldera, estali gabekoa. Guztira 60 autorentzako lekua izango du: *Oso garrantzitsua da aparkalekuak egitea; batez ere, Aiako jendearentzat. Horrela, autoa tren geltokian utzi eta tren har dezakete, eta horrek joko handia emango du, esan digu Juan Carlos Zuloaga Aiako alkateak. Aparkalekuaren aldamenen autobus geltokia ere jarri nahi dute, bi garraiobideak lotzeko.*

Bigarren solairuan oraindik ez dakite zer jarri, eta hirugarrenean takillak eta andenerako sarrera egongo dira. Hasierako aurreproiektuan dendak ere agertzen ziren, baina orain gastuak murriztu nahi dituzte eta baliteke halakorik ez egitea.

Tren geltokiaren aurrealdean errotonda jarriko dute Oriora, Santio aldera, Donostia aldera edo Zarautz aldera doan trafikoa bideratzeko. Zubia oinez pasatzen dutenentzat, berriz, tren-geltokirako pasagunea egingo dute errotondaren azpian.

20 MINUTURO TRENAK

Ez da pasonibelarena, ordea, hurrengo urteetan Eusko-Trenak egingo duen obra ba-

PASONIBELA KENDUKO DUTE eta autoak trenbidearen azpitik pasako dira. Proiektua idazten ari dira orain.



Santio auzoan aldaketa ugari

OINEZKOENTZAKO IBILBIDEA

Santiotik tren geltokira oinezkoentzako ibilbidea egingo dute.

Santion ez dago pasealekua egiteko beharbeste toki errepide alboan eta, errekararen ondoan, baina Olatxo aldetik, hasiko da ibilbidea. Gero, ordea, Portuko pare horretan, erreka pasako dute zubi baten bitartez eta hortik tren geltokirako bidea errepide izkinatik barrena egingo

du. Portutik geltokira bitarteko zati horretan, gainera, errepidetik metro batera egingo dute oinezkoentzako bidea, etorkizunean errepidea zabaltzea erabakitzen badute ere, aukera horri atea ez ixteko.

Lurra asfaltozkoa izango da, material horrek asko irauten duelako eta arazorik gutxien ere berak ematen duelako. Zubia, berriz, egur laminatuz egingo da: *inguru-*


menarekin abalik eta osagarriena izatea da helburua, esan digu Juan Carlos Zuloagak. Olatxo aldetik doan zatian ez dute babes-hesirik jarriko eta errepide ondoan jarri edo ez erabakitzen ari dira.

Proiektua idatzita dago dagoeneko eta aldaketa batzuk egin eta gero jarriko dute jendaurrean. Injelan enpresak idatzi du proiektua, eta obrak aurtan bertan hasteko asmoa du Udalak.

26 ETXEBIZITZA BERRI

Eskola Etxearen eta Ibai Aldeko etxeen artean 26 etxebizitza egingo ditu Udalak. 12 babes ofizialekoak izango dira, eta gainerakoak, libreak. Babes ofizialeko etxeak aiarren artean bakarrik zozketa-tuko dira. Orain lurren jabeekin konpondu nahian dabil-tza, eta urtea bukatzerako zozketa egiteko asmoa dute.

Aia kaskoan ere eraikiko dituzte etxebizitza batzuk.



karra. EuskoTren 21 planarekin Zumaiatik Donostiara bitarteko tren zerbitzua hobetu nahi du eta beste obra batzuk ere egingo ditu koskan-koskan. Beste obra horiek noiz egingo diren, halere, zehazteko dago oraindik.

Zumaiatik Donostiarako ibilbidea 20 minutuan egitea dute helburu, eta hainbat bihurtu kendu eta tunel gehiago jarriko dituzte horretarako. Mota azpian, esaterako, tunela egiteko asmoa dute aurrerago: *Motan beste*

tunel hori egiten den garaian, trenbide guztia mugitu behar-ko da seguru asko, esan digu Juan Carlosek.

Trena 20 minuturo izateko, ahal den toki guztietan tren karrillak bikoiztu egingo dituzte eta Altxerriko zubiaren aldamenean beste zubi bat egitea ere aitatu dute. Orain ia 90 graduko buelta egiten du hor trenbideak eta kurba hori txikiagotu egin nahi dute. Halere, ez dirudi urte batzuetan, behintzat, berririk egingo dutenik, zubi zaharra

indartzen aritu direlako aurtentzen.

Aldaketa dezente izango da, beraz, baina pasonibela kentzeak du lehentasuna: *Pasonibela kentzeak segurtasuna ekarriko du bai autoentzat eta bai oinezkoentzat. Eta, bide batez, asko hobetuko da Oriotik tren geltokirako sarrera hori. Pasonibeleko barrera jaisten denean izugarritzako auto ilarak osatzen dira ordu jakin batzuetan, eta, hori kenduta, errepide sarea hobetuko da*, esan digu Juan Carlos Zuloagak.

BARIANTEAREN PROIEKTUA TRENBIDEKO OBRAREN PESKIZAN

Saihesbidearen proiektua tren geltoki aurrean bukatzen da, eta inguru hori nola geratuko den jakin zain egon dira saihesbidearen proiektuarekin hasteko. *Trenbidea Eusko Jaurlaritzari dagokio eta bariantea Diputazioari, baina orain badirudi bi aldeetako teknikariek hitz egin dutela, eta ez daukate aitzakiarik saihesbidearen proiektuarekin ez hasteko*, esan digu Mirari Arruabarrena alkateak.



OBRAK MARTXAN. Kaleak eraberritzearekin batera gas hornidura sarea sartzten ari dira.

Idi probak

OTSAILA bukaeran hasi eta martxoaren hasiera bitartean jokatuko dira Aian aurtengo lehen idi probak. Hogeita bat idi pare izango dira eta hainbeste direlako zazpi egunetan egingo dira probak. Saio bakoitzean hiru parek jokatuko dute. Olasagasti, Uzkudun eta J. M. Beristainen idiak izango dira jokatuko duten lehenak, otsailaren 28an. Martxoako egutegia, berriz, honako hau izango da: martxoaren 1ean Etxabe, Belarreta eta Garaiar; 3an Telleria, Illarreta eta Loinaz; 7an Zerain, Erlete eta Izeta; 8an Arientza, Motxo eta Tio Legarreta; 9an Zurdo, Arzadun eta Suarte anaiak; 10ean Letea Jatetxea, Artadialde eta Frantxillaberri. Gaueko hamarretan hasiko dira probak eta azkeneko gauean egingo da sari banaketa.

Propano gasaren instalazioa

n Lan batzuk bukatuta daude, besteak bukatzeko

KALE ERABERRITZE PLANAREKIN batera, etxeetara propano gasa eramateko instalazioa sartzten ari da *Somos los del gas* enpresa.

BUKATUTA DAGOENA

Gas almagaztatze zentroa ur depositoarekin behealdean kokatuko da, eta horretarako egin behar izan diren lur mugimenduak bukatuta daude. Hortik kaskora doan sare orokorra ere bukatuta dago, baita Iturri eta Sartalde kaleetako ere.

Azkenik, gasaren hornidura kontratua sinatua duten etxebizitzetan %90etan leihorainoko eta etxe barruko instalazioak bukatuta daude dagoeneko.

BUKATZEKO DAGOENA

Sarea bukatu gabe dago Aizpea eta Joan Etorle kaleetan, baita plazatik Bentaberrira doan kalean ere. Gasa almagaztatze bi depositoak jarri eta horren inguruan hesia jartzea ere falta da.

Bestalde, gaur egun Mahastisoro eta Azkue aldera dauden etxe berriak hornitzen dituzten bi depositoak sare nagusiarekin lotuko dira. Bukatu aurretik, Repsol enpresak proba batzuk egin beharko ditu instalazio guztiak amaituta daudenean.

Bi hilabeteko epean kaleko gas hornidura eta etxeko instalazioa bukatuta dutenek Repsol-i gasa eskatu ahal izango diote, esan digu Somos los del gas enpresak.

Kontzentrazioa

JOSEBA Pagazaurtundua, Andoaingo udaltzainburuaren hilketaren kontra azaltzeko, hamabost minutuko kontzentrazioa egin zen udal etxe aurrean otsailaren 10ean, eguerdiko hamabietan hasita.

Reala

ESKOLA umeak Anoetan izan ziren Realak Espanyolen kontra jokatu zuen partida ikusten. Penaz etorri ziren ez zelako golik izan.

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L
TOKARRAK - KARRILAK

Santiago Ouzozi - 18 postakutza
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@uskalnet.net
20-810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

AENOR **R** **P. NIE**
80 9902

Estera baltza
AENOR kalitate ziurtagiriduna

INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTERKOA

Olaskeogia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

Landare azoka

Landesetan izan ginen, horrelako azoka batean eta pentsatu genuen: hemen egiten badute, Aian zergatik ez? Horrelako toki egokia izanik, saiatu behar dugu ban ere antolatzen. Azoka egiteko Pagoeta eta

Iturraran bezalako tokirik ez dago, ez Gipuzkoan, ez Euskal Herrian eta ez Espainian ere, esan digu Iñaki Aizpuru Diputazioko parke naturalen zuzendariak.

Martxoaren 1ean eta 2an ikusiko dugu lehendabiziko Landare

Berezien Azoka Iturrarango lorategi botanikoan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Aiako Udalak antolatuta.

LANDARE BEREZIEK AZOKA BITXIA

Benetan bitxia izango da, inoiz ez baita horrelakorik antolatu inguru honetan. Landare bereziak ekoizten dituzten mintegiak etorriko dira beren landareak erakutsi eta saltzera. Adibidez, mintegi batek *Tillandsia* espeziekoak ekarriko ditu. Landare horiek Ameriketako oihanetan bizi dira, berez. Sustairirik gabe, zuhaitzetan zintzilikatuta hazten dira eta zuhaitzetatik erortzen den euri uratik jasotzen dituzte behar dituzten mineralak. Piñaren ahaideak dira eta piña bezala, goitik behera datorren ura jasotzeko hosto egokiak dituzte. Bestalde, etxe edota lorategiko txoko bakoitzerako landare egokiak topatu ahal izango dira azokan; adibidez, itzalera egokitutako landareak izango dira salgai postu batean. Hemen ezagunagoak zaizkigun haritz eta astigarren bilduma ere ekarriko du beste mintegi batek.

Hemen inguruan oraindik horrelako ohiturarik ez dagoenez, mintegi gehienak kanpotik datoz, batez ere

Frantziatik. Dena dela, Gipuzkoan badira landareak ekoizten dituzten mintegiak: adibidez, Usurbil, Aginaga, Oiartzun eta Legazpitik etorriko dira batzuk.

AIAKO PRODUKTUAK ETA ERROMERIA GIROA

Landareak saltzeaz gain, antolatzaileek garrantzia eman nahi izan diote Aiako herriari eta Aiako bertako produktuei. Iñaki Aizpuruak argi ikusten du bigarren asmo horren garrantzia: *Azoka aitzakia ere bada, Pagoeta ingurua eta Aia jendeari erakutsi eta ezagutarazteko.* Hala nola, Agerreburu eta Orortegi baserriko gaztagileak bertan izango dira, Arizmendi baserrikoek sagardoa eramango dute eta Aiako trikitixa eskolakoek erromeria giro alai ziuertuko dute.

Egun guztian jatekorik eta edatekorik ere ez da faltako, Aiala sukaldari eskola, Goiabe sukaldaritza ekologikoa, Zudugarai txakolina eta Lazkao talogileak han izango baitira.

DATUAK

Azoka goizeko hamarretatik arratsaldeko bostak arte egongo da zabalik, bai larunbatean eta baita igandean ere. Iturrarango lorategi botanikoan egingo da azoka, baina han autoa uzteko nahiko lekurik ez dago eta etengabe autobus zerbitzua egongo da inguruko aparkalekueetatik (Aiatik eta Luku-netik, adibidez). Hurbildu ahala, laguntzaileek eta langileek autoak non utzi eta azokara nola joan erakutsiko dute. Landare asko edo tamaina handikoak erosten dituenarentzat ere, garraio zerbitzua egongo da horiek autora eramanez ahal izateko.

Bestalde, sarrerak 3 euro balio du, eta garraio zerbitzua erabiltzeko eta azokara sartzeko balioko du.

Arreta kultur taldeko Aran Aldai seguru agertu zaigu: *Giro aparta izango da. Animatu zaitezte etortzera!*



ITURRARAN. Baserrian eta lorategi botanikoan jarriko da azoka.

Aiak azoka bakarra izan du orain arte, Asentsioko Feriakoa, urtero maiztzean izaten dena. Aurten, proiektu berri bat jarri da martxan: Landare Berezien Azoka egingo da martxoaren 1ean eta 2an Iturrarango Lorategi Botanikoan. Arrakastatsua izanez gero, hemendik aurrera urtero egingo da.

AIKO LEIHOA

Galipota

Antxon Gomez

Duela urtebete Euskadi Irratian lan egiten duen lagun batek deitu zidan aspaldiko partez. Euskal Herriko parke naturalei buruzko erreportajea egiten ari zen eta basozain bat elkarrizketatu nahi zuen.

Besteak beste, gaur egun jendeak kontzientzia ekologiko handiagoa baduen galdetu zidan. Eta kazetaria harritu egin zen ezetz entzuterakoan.

Hori bai, itxurakeria gehiago dago orain: edozein petrolio-ustiatetik edo pozoi kimikoen enpresak diruaren hondakin batzuk erabiliko ditu ingurumenaren alde lan egiten duten Gobernu Kanpoko Erakundeei laguntzeko. Politikoki zuzena hori baita.

Itoizko urtegia edo Abiadura Handiko Trena bezalako astakeria ekologikoak bultzatzen dituzten politikari berberak izadiaren salbatzailetzat azalduko zaizkigu mikrofonoa jarri orduko; bereziki Zuhaitz Egunean edo Ingurugiroaren Nazioarteko Egunean. Politikoki zuzena delako.

Halakoetan norbaitek pentsa dezake agian gizartea

hondamendi ekologiko larri baten aurrean esnatuko dela, *Prestige*-k sortutako marea beltza euskal kostaldera ailegatzean itxurakeriak benetazko kontzientzia ekologikoari tartea utziko diola.

Aia eta Orioko kostaldea ere galipotez zikintzen den bitartean, gure arrantzaleek fuela salabardo eta gerri kolpean itsasoan jaso eta Imaz jaunak, "eguraldiaren gizonaren" postua hartuta, hurrengo 24 orduetarako eguraldiaren pronostikoa egiten digun bitartean, galdera bat etortzen zait burura.

Prestige-ren hondamendiaren inguruko zirko mediatiko guztia amaitzean —agintarien prentsaurrekoak barne— eta sarbide zaileko eta balore ekologiko handiko hainbat arroka eta labarretan galipot orbanak hamarkadetarako itsatsita geratzen zaizkigunean, inork garbitzeko, komunikabideetan marea beltza jada laugarren edo bosgarren berria izatera pasatu delako, euskal herritarren kontzientzia ekologiko handiagoa izango ote dugun benetan.

AIKO TXOKO ETA JENDEAK



San Lorentzo eguneko diana

Ekzerretik eskuinera eta goitik behera: Jose M. Zabala poste batean, Bizente Zuloaga bestean.

2. ilaran: Miguel Aldalur, ezezaguna, Jose Rezabal eta Joakin Iruretagoiena.

3. ilaran: Juanito Arruti (marinela), Inazio Zuloaga, Jose Aldalur (txistularia) eta Frantzisko Ibarrola (danborjolea), Angel maisua, Faustino Jonsansoro eta ezezaguna (txapel zuriarekin)

Makurtuta: Jose Arrillaga, Jose Arruti, ezezaguna, Manolo maisua, Juan Luis Sagastizabalgoa, eta, atzerago, Konstantino eta Juan Azpiroz.

Festa giroan, Jose eta *Praxku M.* alguazilak ziren ttunttuna jotzen zutenak: igande arratsaldero egiten zuten hori, eta arrazoi gehiagorekin jaietan.

PORTU
ERRETEGIA

Santxo Erreka Auzoa, 2/g
☎ 943 89 44 34
20609 AIA - ORIO



Peñakeria eta estolito mistoa



Joe Añelak, ☎ Tel: 943 82 31 70

Kinkiladenda - Ume arropa



Argine Azenale Suñaga
Eusko Gudariak, ☎ Tel: 943 72 48 89 - ORIO

IKASLEAK



idazle

Asier Soto

Euskara dela eta

Nik, gutxi gorabehera, ehuneko hirurogei erdaraz egiten dut. Ez dut egiten besteak izorratzeko, nik etxean gurasoekin erdaraz hitz egiteko ohitura dudalako baizik. Saiatzen naiz, bai, euskaraz hitz egiten, baina lortu ezinik nago, beti norbait erdaraz hasten zaidalako.


Ziur nago eskolan gure maila dela erdaraz gehien hitz egiten duena. Gainera, uste dut gu garela errudunak 1. eta 2. mailakoak erdaraz hain maiz hitz egiteko.

Bukatzeko esan nahi dut honek konponbide bat behar duela. Bilatuko ote da? Bai? Ez?

Konponbidea bilatu nahi badugu, beti euskaraz hitz egiten dutenak ere konturatu behar dira gurekin oso erraz jotzen dutela erdarara. Horiek ere bai pixka bat kontrolatzea, ezta?

Nire gelako batek idatzi duena egia da: *Jende asko dago euskara ikasi nahi duena, baina jende asko dago ere euskara jakin eta erabiltzen ez duena.*

Nik ez dut euskara galtzerik nahi, euskara galtzea monumentu historiko bat edo dinosaurioak galtzea bezala izango litzatekeelako.



Ahotsen ederra

Midem ferian izan da aus_Art records diskoetxea Eusko Jauraritzak jarritako standean. Musika grabatuaren inguruko 10.000 profesional elkartzeko urtero feria horrek eta Juan Rekartek gure klasikoak eraman ditu haraino beste bost etxerekin batera.

Hara joan aurretik azken diskoa aurkeztu zuen, bi meza jasotzen dituen. Javier Bustok sortutakoak dira biak: *Missa brevis pro pace* eta *Missa pro defunctis*.

Eskarmentu handia du Javier Bustok koruekin eta ondo baino hobeto ezagutzen ditu ahotsen ezaugarriak eta sekretu guztiak. Bakearen aldeko meza *a cappella* dago kantatua, hau da, bestelako instrumentuen laguntzarik gabe, ahots hutsak aditzen dira. Nota eta hitzak soinu garbiak eta

bereiztuak ekartzen ditu, sonoritate ederrean, oihartzunen jolasean *Kyrie* eta *Gloria*-n. *Sanctus*-a oso bitxia da: elkarriketaren adierazgarritasuna nagusitzen da musikaren gainetik jolas politean. *Benedictus* eta *Agnus dei* gozoek harmoniak dakartzate, berriz.


Klarinetearen laguntza bakarrarekin dabil korua kantuan *Missa pro defunctis*-ean, eta badaki koruak orkestrarena egiten haren atzetik laguntzaile bera bihurtuz, sentikor eta leun beti biak, protagonismoa txandatu. Melodia lasai eta sentituak dira meza osatzen duten gehienak *In paradisum*-en bezala. Egokia eta gustagarria koruaren eta solisten lana, kantuari ondo lotuta interpretazioan.

ANA G. DE TXABARRI


DENBORA PASA

Hamar hizkiko hitzaren bokalak eta kontsonanteak bereizi eta nahastu egin ditugu.

Egoki elkar itzazu, hitza osorik aurkitzeko. Sasoi-sasoikoa da.



KANPOAN daudenak



Jon Arruti Etxenike

Kanpoan, kanpoan... Kukuarritik Igeldora bidean pauso bakar batek bereizten nau jaioterritik.

Badira jadanik 10 urte nire burua Donostian aurkitu nuenetik, gurasoen lan kontuak zirela medio. Bertan Unibertsitate Biderako ikasketak egin nituen Axular Lizeoan oriotarrez inguraturik, eta hurrengo 5 urteak, amaitu berri ditudan diseinu ikasketak egiten igaro ditut Irungo ikastetxe batean.

Distantzia txikia den arren, badira faltan botatzten ditudan gauzak — familia eta lagun onak

Hiriak baditu abantailak

gehienbat—, baita euskararen alorrean bi herrien artean ikus eta entzuten den ezberdintasun handia ere. Dena den, baditu Donostiaren tankerako herri handi batek abantaila handiak ere, eta ez dira bistan dauden gauza materialak soilik, herri txiki batek inolaz eskaini ezin dituen intimitatea bezalako gauzak baizik

—benetan eskertzekoa—.

Hasiera batean donostiar izatearen ideia benetan zaila ikusi arren, lehenengo egunetik Orioko Ikastolako irakasle batek esan zidan moduan, *kapitalista* bihurtzen ari ote naiz... Bertara ohitzea asko kostatzen zitzaidan arren, aukeran ezingo nuke esan okerrera egin nuenik, ezta bertan betirako biziko nintzatekeenik ere.

Pauso bakar bat herri-mina sortzeko nahikoa dela baieztatu dezakeen honek besterik gabe, agur bero bat oriotar guztiei, eta ikusi arte.

JAIOTAKOAK

- Sarai Garmendia Eizagirre, Orion, otsailaren 8an.

HILDAKOAK

- Ez da hildakorik izan.

EZKONDUTAKOAK

- Mariano Saez Perez eta Sonia Gama Lertxundi, Orion, otsailaren 1ean.

ZORIONAK

Arrantzaleei

Nori, bestela? Garai honetan familiarekin eta lagunekin egoteko aukera alboratu utzita, galipota madarikatua jasotzeko lana egiteko prest azaldu direlako. Elurra ari zuela ere, aritu izan dira aste honetan; Frantziakoak, bitartean, baporeak prestatu zituzten arrantzara joateko. Ez da zuzena batzuk garbitzen jardutea eta besteek hori aprobetxatzea. Zorionak, beraz, zuzen jokatzeko ari direnentzat eta zoriotxarrak besteentzat.

OSPAKIZUNAK



URREZKO EZTEIAK. Orain dela 50 urte, otsailaren 14an —*San Valentín* eguna, orduan ospatzen ez bazen ere— ezkondu ziren Martzelino Peña eta Karmen Barandiaran. Igandean ospatu zuten familiarekin, mezetara joan eta ondoren bapo bazkalduz. Zorionak bioi!

Iñigo Fernandez



Iñigo Fernandez Diaz de Mendibilek urtebete egingo du pailazo European barrera beste mutil aleman batekin. 'Olli eta Niko', hori dute izen artistikoa eta zirkoek kontratatuta lan egiten dute. Iñigo —Niko, lanean— sekula ez da antzerkian aritu eta pailazo aritzea zer den ere, oraintsu ikasi du. Hemen inguruan ez omen du emanaldirik, baina Danimarkan eta Ingalaterran izan da dagoeneko, eta otsailaren 25ean Alemaniara abiatuko da.

Nola hasi zara pailazo lanean?

Urriari mutil aleman baten iragarkia ikusi nuen interneten; urte osoan pailazo aritzeko laguntzaile baten bila zebilen. Orduan lanik gabe nengoen eta zirkoaren eta pailazoaren mundua betidanik gustatu zaidanez, aukera polita iruditu zitzaidan hori barrutik ezagutzeko. Bera Frantzian, Arroxelan, bizi da eta Donostiara etorri zen, ni ezagutzeko. Urriari Danimarkara joan ginen eta hango zirko nazionalarekin egin genuen lan, bi asteko gala batean. Handik etxera etorri nintzen eta sanikolasak pasa eta gero, Londresera joan ginen. Orain urtebete kontratua dugu Probst zirkoarekin, Alemanian lan egiteko.

Ze hizkuntza erabiltzen duzu lanean eta lankidearekin?

Ollik 16 urte daramatza pailazo eta hizkuntza pila bat dakizki: alemana, frantsesa, ingelesa, portugesa, italiara... Espainola ez daki, baina erdi italiaraz, erdi portugesez ulertzen dugu elkar. Lanean, nik pailazo mutua egiten dut eta bera edozein hizkuntzatan moldatzen da.

Antzerki munduan sekula ibili gabea zara. Zer izan da zailena?

Espresatzea. Pailazo mutua naizenez, asko landu behar izan dut hori: ispilu aurrean jarri eta keinuak egin eta egin. Exajeratu egin behar dira gauzak: barre egiteko ahoa asko zabaldu, begiak asko ireki... Ez da pailazoz jantzi eta kito. Ikasteko gogoa behar da, eta lotsarik ez.

Zer egiten duzu egun normal batean?

Lehenengo emanaldia arratsaldeko hiruretan baldin bada, hamabietan jaiki, bazkaldu eta, ordubete lehenago, presatzen hasten gara. Egunean hiru edo lau ikuskizun egiten ditugu, eta ordubete izaten dugu deskantsatzeko. Hori

karabanara joan eta lo egin, musika entzun edo telebista ikusteko aprobetxatzen dugu. Ordua ailegatzen denean, berriro pistara, eta, lana bukatutakoan, dutxatu, afaldu eta ohera edo zirkoaren jendearekin tertulian gelditzen gara.

Aurreneko egunetan ateratzen gara herrira eta zerbait ezagutzen dugu, baina gero beti berdina da, monotonoa askotan. Gainera, zirkoaren mundua oso itxia da. Baina, orain, herriz herri ibiliko garenaz, ezberdina izango dela uste dut.

Etxean zer diote?

Behintzat, ordaintzen baldin badiote... —barre egiten du—. Hasieran disgustu pixka bat hartu zuten, baina beti jakin dute niri zirkoa gustatzen zaidala, eta onartu dute. Ni gustura ikusita, berak ere gustura.

Beti batera eta bestera ibiltzen gara eta zerbait pasako ote zaidan, horrek ematen die beldurrik gehien; istripuren bat

Pailazo lan egingo dut Alemanian urtebete, Probst zirkoarekin

izateak. Baina ez dago arazorik. Kamionetarekin gehienez 80 km/h-ko abiaduran joaten gara eta, gainera, beti karabanen. Aseguru bat ere egin dimate, badaezpada ere.

Etorkizunean ikusten al duzu zure burua pailazo?

Ez. Etxetik kanpo denbora asko pasatzen da eta lagunekin ere kontaktu asko galtzen da. Oraingoan, urtarrila arte kontratua eta gero ikusiko dugu. Abentura izan da; niretzat ez da lan bat. Beti gustatu zait hiri handiak ezagutzeko eta horretarako aprobetxatu nahi dut.



Afari jendetsua

Iraila heltzearekin batera joan zitzaigun iaz *Luxarbe*, eta Orioko gazte asko elkartu zituen ekitaldia izan zen azaroaren azken egunean egin zitzaion omenaldia. Otsailaren 16an beteko zituen Julenek 20 urte, eta omenaldia prestatzen jardun zuten lagunek bere urtebetetzea ospatu zuten. 150 bat gazte orotar batu ziren omenaldiko bideoa

ikusi eta gero afaltzera joateko. Urdaira sagardotegian afaldu zuten, eta argazkian bertaratu ziren lagun batzuk agertzen dira. Oroitzapenik onenak lagun, jai giroa nagusitu zen Julenen urtebetetze afarian. Argazkilariak ezin izan zituen guztiak argazkian atera, gazteenak bakarrik harrapatu zituen, besteak txotx egitera joanak zirelako.

INAZIO MANTEROLA ETA SEMEAK
ARRAINA ETA MARISKOA
Ubegun auzoa AIA • Telfs. (943) 13 10 09 • Fax 13 39 52
8 postokutxa • 20810 ORIO

**ARKAITZ
Taberna**
Pintxoak, plater konbinatuak
eta ogitarteko mundialak
AHESLARI KALEA, 4 ☎ 943 83 36 57

KONTZERTUA

- Otsailaren 26an, inauterietako kontzertua emango dute Musika eskolako ikasleek.

ZINE EMANALDIA

- Otsailaren 23an *Ipar haizearen erronka* filma eta martxoaren 2an *Pocahontas II* filma, 16:00etan kultur etxean, ikastolako ikasleek antolatuta.

KONTZENTRAZIOA

- Etxerat! taldeak antolatuta, kontzentrazioa plazan otsailaren 28an, 20:00etan.

PLASTIKO BILKETA

- Aian, silo-bola plastikoen bilketa martxoaren 11n. Norbaitek plastiko asko badu, biltzailearekin hitz egin dezake etxera bertara joan dadin, hona deituta: 629 81 78 86.

OLIO BILKETA

- Martxoaren 6an jasoko dute Orion olio zaharra, osteguneroko azokan.

PODOLOGOA

- Aian, martxoaren 8an podologo zerbitzua izango da. Izena emateko, udalean. Tf.: 943 13 11 44.

FUTBOLA

- Orion, otsailaren 23an: kadeteen 1. maila Orio-Aurrera.



SAHARAKO HAURRAK udan etxean hartu nahi dituenak Udaleko Gizarte Zerbitzuan edo Urola Kostako Udal Elkartearen eman behar du izena otsailaren 24a baino lehen.

- Orion, martxoaren 2an: jubenilen 1. maila Orio-Soraluze.

ARETO FUTBOLA

- Karelán, otsailaren 23an, maila autonomikoan: Orioko Tabernak-Maykons Sport.
- Karelán, otsailaren 23an, 2A taldea: Orioko Tabernak-Alegia Calcínor.

ERROMERIA

- Erromeriak Aristerrazun: otsailaren 23an Joseba Iparragirre eta Ander San Jose trikitilariak izango dira, 21:00etan. Martxoaren 2an ez da erromeriarik egingo.

ALTZARIAK

- Orion, altzari zaharrak jasoko dituzte otsailaren 26an.

ZERGAK

- Zirkulazio zerga ordaintzeko epea: martxoaren 1etik apirilaren 15era.
- Zaborren tasa, ura eta estolderia ordaintzeko epea: 2002ko 4. hiruilekoa ordaintzeko, apirilaren 20ra bitartean.

INAUTERI FESTA

- Martxoaren 1ean, Txurumuskik eta Arkupek antolatuta inauteri festa 4-13 urte bitartekoentzat. Uranga eta Lore burdindegietan, Argiñe edota Anarrin eman behar da izena.
- Goiko Tabernetan ere mozzorro lehiaketa egingo dute, martxoaren 1ean, gauetz.

ZAINZAKO BOTIKAK

OTSAILA

- 21ean, Azaldegi
- 22 eta 23an, Zulaika
- 24an, Mutiozabal
- 25ean, Barrenetxea
- 26an, Uranga
- 27an, Azaldegi
- 28an, Zulaika

MARTXOA

- 1 eta 2an, Iriarte
- 3an, Barrenetxea
- 4an, Uranga
- 5ean, Azaldegi
- 6an, Zulaika
- 7an, Iriarte
- 8 eta 9an, Olaizola

AZALDEGI: Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 ZARAUZ

BARRENETXEA: Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 ZARAUZ

MUTIOZABAL: Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 ZARAUZ

OLAIZOLA: S. Frantzisko kalea, 16. 943 13 38 14 ZARAUZ

LASA: Herriko plaza. 943 83 09 36 ORIO

URANGA: Zigorria kalea, 17. 943 13 40 19 ZARAUZ

IRIARTE: Zinkunegi, Pilartxo Enea 943 13 29 83 ZARAUZ

ZULAIKA: Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 ZARAUZ

Inauteriak
Denbora pasaren soluzioa:

bodegasERRASTI, S. L.




Eskuakderako buratzailea
Zuchugarai, Getariako txakolina
Ilagares, ardo gorri nafarra
Bodegas Gailur, Señorío de Laurgain
Gailur eta Ardanategi,
Arabar Errioxako ardoak

Esku-Budari, 46. ORIO • (943) 83 00 86 / 83 99 52 • E-posta: bodegaserrasti@euskalnet.net

**JATETXEA
KANUA
RESTAURANTE**

Gozategi Enparantza, 11 - AIA
T.F. 943 83 43 77

- * Berriko habiurrin eta haragiak
- * Elheko sukalde goso eta ahsegina
- * Haurrentzako menu berezia eta jolastekua



Photomuseum
antalya